

Startinnova III - Funtsezko sozietateak

Negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatzen dituzte.

Hornitzaileak gure zerbitzuak gauzatzeko behar dugun guztia ematen duten enpresak dira.

Alde batetik, kafe-aleen eta kafe disolbagarriaren hornitzailea dugu, edariak berritzen eta negozioan hazten laguntzen diguna. Gainera, premium kafe mota ezberdinak ditugu, kalitatezko produktu iraunkorrak eskaintzen dituztenak.

Matcha latte izeneko te berdea saltzeko, handizkako hornitzaile espezifikoko bat kontratatu dugu: hain zuzen ere, Baia Food Co. Honek merkatuan aurki daitekeen matcha latte onena egiteko behar diren produktuez hornituko gaitu.

Bestalde, Almalibre Açai House-ren hornitzaileak açai deritzon fruta emateaz arduratzen dira, gure bezeroei hainbeste gustatzen zaizkien açai bowls ospetsuak eta eskari handikoak egin ahal izateko. Brasilgo Amazoniako oihanetik açai-ko fruta zoragarria ekartzen digute. Fruta horrek hainbat onura dakartzkio osasunari, eta ingurumenari ere laguntzen dio.



Horrez gain, Linke enpresa donostiarrak ostalaritzarako eta elikagai-saltokietarako makinak instalatzen ditu, eta gure lokaletako ekipamenduen hornitzaileak dira. Kafe-makinak, txigorgailuak, kafe-iragazkiak, errotak eta beste hainbat produktu eskaintzen dizkigute.

Aipatu beharra dago, *Gathering&co* enpresako langile bakoitzak bere eginbeharra izngo duela:

Hasteko, Alaznek zerbitzari gisa lan egingo du, ostalaritzako goi mailako titulua baitu eta horretarako kualifikatuta baitago. Bezeroetaz arduratuko da eta hauen behar guztiak asetzen saiatuko da. Bezeroek tratu paregabea jasoko dute eta gure zerbitzuetara itzultzeko nahia izan dezaten.



Sukaldari lanetan, berriz, Gorka arituko da, Basque Culinary Centerren lortutako

prestakuntzari esker. Gainera, gozogintzarekin berrituz gozatzen du, horixe baita bere indargunea. Sukaldean teknika berriak probatzeaz ez da nekatzen, eta horrek gure produktuak optimizatuko ditu.

Leire, ordea, marketing eta ADEko gradu bikoitza ikasi ondoren, enpresaren kontabilitateaz, marketingaz eta finantzaz arduratuko da, hau da, diru-sarrerak eta gastuak kontrolatzeaz, besteak beste. Era berean, enpresaren publizitateaz eta web-zerbitzuaz arduratuko da, eta alderdi guztiak antolatuko ditu egunero zerbitzua hobetzeko.

Azkenik, Lucia irakurketa-klubak eta eztabaidak antolatzeaz arduratuko da, horiek izango baitira gainerako enpresetatik bereizten gaituzten jardueretako batzuk. Horien ordutegia planifikatuko du, parte-hartzaileak apuntatuko ditu eta, eztabaiden kasuan, bera izango da moderatzailea.

